

EKAINAK 20 Ficoban
13:00 Kalejira Urdanibia
Plazatik hasita

14:15 Bazkaria Ficoban
Globotxupinazoa

16:00 DJ Balber

17:00 Burrunbarekin
Dantzaldia

19:00 DJ Balber

20:30 Herrera Itzulia: "Karibe
Mix Diskojaia"

EKAINAK 27 Urdanibia Plazan
09:00 Gosari Herrikoia

09:30 Goitibera txanden zozketa

10:00 V. Irungo Goitiberen sari nagusia

12:30 Peña Poteo, Txintxarri eta
Burrunbarekin Poteoa

13:30 Mahai eta aulkien banaketa

14:30 Bazkaria + Bingo Musikatua
txarangek lagunduta

17:30 Kamixeta, mahai apainketa eta
bingo musikatuko sari banaketa
txarangen laguntzarekin

18:00 Sasi guztien gaisetik laino
guztien azpitik mahaien jasoketa

Bazkariko erreserbak eta INFO+:
bettigotti.eus

IRUNGO KOADRILA EGUNA(K) 2026



Laguntzaileak



KOADRILEN EGUNA 2026

HERRI BAZKARIA

AURKEZPENA

2008 tik 2020 urteetara hainbat kolore izan ditugu gure herri bazkariko zapiaren kolorea aldatuz. 2022 Beltza, Urdina, Morea, Berdea egin ditugu dagoeneko, beraz, aurten gure kolorea LARANJA izango da. 2021 Urtea pandemia garaia ekarri zuen inoiz pentsatu gabeko egoera, baina aurtengoa ere ezin izan dugu gure ohiko eguna ospatu. Argibide gehiago gure sareetan zabaldutako komunikazioan. Hemen duzue QR kodea ikusi ahal izateko.



2026 urte honetan bi egunetan ospatuko dugu koadrilen eguna. Ekainaren 20 eta 27an.

Aurten lehengo urtearen esperientzia eta gero, herri bazkaria eskaera email batez sortzea da asmoa. Gu eskaerak jasoko ditugu beren iritsiera ordu eta guzti, eta geuk sartu ditugu datu guztiak ondoren parte hartzaileak mezu bat jasoz eskaera konfirmatu eta ordainketa egin ahal izateko. Dena oso ondo joango dela espero dugu.

Esker berezia eman nahi diogu Antxeta Irratiari aurten gurekin batera Kamiseta lehiaketa antolatuko bai dugu. Beraz, koadrilei egiten jarrai dezatela eskatzen diegu aldaketa txiki batekin. Koadrilan adostutako izen, goitizen labur batekin beren diseinuaz gain. Beraz aurten ere, KAMIXETA LEHIAKETA izango dugu.

2025 urteko koadrila eguna antolatzeko udalarekin bilerak goiz abiatu genituen. Oztopoak izan ditugu eta zailtasuna zailtasun, eskatu behar diogu kultur arloari, adostutakoak errespetatzea eta bidea erraztea.

Udalarekin bilerak izaten ari gara, baina arduratuta gaude, asko estutzen bai zaigu antolakuntzaren martxa jarraitzeko bidea. Kultur arloak gauzak garaiz egitea eta gure denbora boluntarioa zaintzea eskatzen dugu.

Udalak aitortzen du, ekintza jendetsuena, arrakastatsuen dela. Badakite, gure helburuetako bat, jai giroan sentsibilitate ezberdineko jendea batzea dela; eta hori balioan jartzea eskatzen diogu.

Gure betiko helburua gogoratu nahi dugu, hau da, guztiori zuzendu eta herri guztiari eskaintzeko nahi dugun egun hau gauzatzen jarraitzea, guk hori antolatzeko ilusioarekin jarraitzen dugulako. Koadrila egunak ez bai du adinik ezagutzen, nor berak jartzen dionarena baizik. Eta ongi pasatzea denontzako da eta ez gazteen kontu bat bakarrik. Herriari eskatzen diogu eguneko ekitaldietan parte hartu dezatela ikusle, partaide, girotze, dantzatzeko edo nork berak nahi duen moduan.

Dei berezia egiten diogu Udalari, datozen urteei begira, errespeta gaitzala hiriko jai egunetan dugun koadrila egunari dagokion tokian, egitea utzi gaitzala, gainera nahiko genuke, Betti Gottik sortutako ekintza honi duen balioa ematea, elkarre honen behar dituen segurtasun eta berme guztiak asetzeko eta horrelako egun baten antolaketa **egoera prekario batetatik ateratzeko laguntza eman dezala. 23 urteko ibilbidean, Hiri honetan eskeinitakoa, ematen jarraitu nahi dugu.** Bilerak garaiz egitea bideragarritasuna bermatzeko eskatzen diogu.

Udalari gurekin batera lanean hasteko eskatzen diogu, 2027ko Herri Bazkaria Irungo hirigunera ekarri ahal izateko. Honek ez du esan nahi Ficoba gunea egon behar ez duenik baizik eta, beste herritar profil bati ere aukera eman behar zaiola herriko jaiak beste modu batean bizitzeko. Honela, adin, kolektibo edo familia mota guztiei zuzendu gaitzke eta Irunen egun izugarri honetaz gozatzeko aukera denei zabaldu.

Urteroko moduan partaide eta herritar guztiei esan nahi diegu, ez ditugu onartuko zurekin batera eserita daudenekiko errespeta faltarik eta mahaiaren inguruan modu egokiak ez diren jarrerarik. Jai giroko bazkari batean gozatzera datorren edozeinen ongi izatea nahi dugu bermatu zure laguntzaz. Koadrila eguna antolatzea esfortzu handia izaten ari da eta eskaera berezia egiten dugu jende guztiari, giro ezin hobean, ahaztezina izango den eguna, denon artean burutu dezagula.

EGITARAUA ekaina 20 eta 27an

Ekainaren 20 larunbata

- 12.00 TXARANGA PEÑA POTELO ETA TRIKITILARIAK, Alde zaharreko kaleak girotzen
- 13.00 KALEJIRA. Urdanibia plazatik abiatuko da.
- 14.15 BAZKARIA. Ficoba. GLOBOTXUPINAZOA

Ateak itxi egingo dira 14:45 etan.

- 16:00 DJ Balber FIKOBAKO ATEAK **16:00** IREKIKO DIRA
- 17:00 Burrunbarekin Dantzaldia!!!
- 19.00 DJ Balber
- 20:30 KALEJIRA. KARIBE MIX DISKO JAIA-ren eskutik ITZULERA.

Ekainaren 27 larunbata Urdanibia plazan:

Eguna, Gosaria eta Irun Hiriko Goitibera lehiaketarekin hasiko dugu. Eguerdi aldera, 2026ko Kamixeta lehiaketaren sariketa egingo da. Ondoren pintxo potea partaideei eta Irungo txarangekin. Peña Poteo, Txintxarri eta Burrunba txarangekin.

09:00 KOADRILEN GOSARI HERRIKOIA Urdanibia plaza. . Izena ematea web gunea bidez.

09:30 Goitibera parte hartzeko zozketa Urdanibiako oholtzan.

10:00 IRUN HIRIKO V.SARI NAGUSIA GOITIBERA LEHIAKETA

12:30 PEÑA POTE, TXINTXARRI ETA BURRUNBAREN ANIMAZIOA pintxo pote jiran.

13:30 Bazkariko mahai eta aukien banaketa

14:30 Partaideen mahai txukun polit eta dekoratuenari argazkia sariketarako

14:30 Bingo musikatuaren hasiera eta txosnen eskutik bazkaria

17:30 Koadrila eguneko kamixeta, bingo musikatua eta mahai dekoratuenari sariketak egingo ditugu txarangen laguntzarekin.

18:00 Sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik mahai eta aukien altxatzeak.

PATE HARTZEKO IZEN EMATEAK

1. **Gosari herrikoian** parte hartzeko, web gunean izena ematen da 12 euroren truke.

Maiatzaren 28 tik Aurrera izango da aukera izen emateko ekainaren 1 bitarte.

2. **Goitiberan** parte hartzeko, web gunean izena ematen da 10 euroren truke.

Maiatzaren 28 tik Aurrera izango da aukera izen emateko ekainaren 1 bitarte.

3. **Koadrilen kamiseta lehiaketa** izen ematea web gunearen bidez egingo da. Diseinua prestatu eta erregistratzeko epeak maiatza 28 etik ekainaren 15 arte izango da. Izen ematean kamisetaren diseinua eta ezaugarriak aurkeztu beharko dire. Argibide gehio web gunean. Bi egunetan kamisetak eramatea.

4. **Herri bazkarietan parte hartzeko**, maiatzaren 28 eguerdiko 12-etatik Maiatza 31 bitarte izango da aukera, Pabiloia bete arte eta Urdanibiako plazak bete harte. Web gunearen bidez 20 euroren truke izango dira eskuragai txartelak Ficoba-rako

5. **Koadrilen mahai txukun, dekoratu originalaren lehekiaketa**. 6 lagunentzako mahiak izango dira eta 15 euroren truke egin beharko da erreserba. Mahai erreserbarekin batera aduradun baten datuak erregistratu beharko dira. Ondoren, egunean bertan bazkaria hasi aurretik lehiaketan parte hartu duten mahi guztiei argazki bat aterako zaie.

6. **Bingo musikatua**. 5 euroren truke txarteleko, web gunean hartu daiteke.

HERRI BAZKARIA Ficoba-n

Herri bazkaria **ekainaren 20an**, larunbatean, ospatuko da.

Ficoba-ko pabiloietan egingo da eta azken urteetan bezalaxe, 1. eta 2. pabiloietan bazkaria ospatuko da eta 3. pabiloian barra eta dantzaldia antolatuko da.

1800 pertsonarentzako tokia izango da.

Bazkari txartela Ficoba-n sartu ahal izateko **20 eurokoa** izango da.

Aurtengo zapiaren kolorea, kartelean ondo ikusiko den bezala, **Laranja** izango dugu.

Txartelen salmenta berrikuntza:

Web gunearen bidez egingo da maiatzaren 28 osteguna, eguerdiko 12:00etatik aurrera.

Eskatzaileak eskaera bat sortzen du <https://forms.gle/sn2ASJF4rRkg9QLGA> galdetegian, honako datu hauek eman dutelarik:

Izen eta 2 abizenak, NAN zenbakia, Adina eta jaiotze data, mugikor zenbakia, Herria, Koadrilan adostutako goitizen motza, Zu barne zenbat txartela, Dieta bereziak zenbat eta zer.

Ondoren eskaerak sortuta ondo bidali izanaren mezua jasoko dute.

Betti gottik, egun batzuk hartuko ditu guztia kudeatu ahal izateko.

Ondoren emailak bidaliko ditugu, koadrila bakoitzeko arduradunari bere eskaera burutu eta ordainketa egin dezan.

Bizum edo txartelaren bidez ordainduko da.

Web gunean dagoen planoan eserlekuan kokatuko ditugu koadrila guztiak. Kontu handia izan, koadrilak elkar jarri nahiko balute, ordainketa egin baino lehen esan behar digutela zeinekin jarri batera. Ordainketa egin ondoren, eserleku horiek ezin izango direlako mugitu eta pertsona horiek zenbaki hori esleituko/emango zaie bazkaltzeko toki bezala.

Txartela erosterakoan, pertsona baten datuak bilduko ditugu. Behin erosi dutelarik, inprimatu beharko dute sarrera gisa erabiliko den txartela. Erosketa bera izango da ekintza hauetan dauden arauen onarpenaren adierazle.

Txartelak erosteko epea maiatzaren 31an bukatuko da.

Txartela erosteko unean, edonorentzat dieta berezia, intolerantzia edo preskripzio medikua duen edonorentzako aukera izango du adierazteko eta eroslearen ardura izango da bere koadrilan ere hori adierazteko/zaintzeko ardura. Antolakuntzak erosketaren bidez jakingo du nork behar duen dieta bereziren bat.

Txartela bakarrik ez erostea eskatzen dugu. Erosiko balu ezin izango du bere tokia ez den tokian bazkaldu edo eseri. Kanporatua izango da eta ez du diru itzulketarik izango, bere ardurapean erosi ezkeronartuko du arau hauen onarpena. Kontuan hartu ficoba-ko ateak 14:45 etan itxiko direla eta ez dagoela aukerarik dirua itzultzeko. Antolakuntzarekin hitz egin kasu hauetan eguna iritsi baino lehen.

Sarrerak zenbakituak dira. **Adingabekoei** (18 urtetik beherakoei) **sarrera ez erostea** eskatzen diegu, izan ere, ezin izango dira Ficoba-ra sartu.

Azken urteetan bezalaxe, pabiloiak eta **sarrerak bi taldetan** banatuko dira; alde batetik, 23 urtetik gorakoentzako sarrerak egongo dira eta bestetik, 22 urtetik beherakoentzat; adin guztietako gazteak daudela bermatzeko.

Pabiloian sartzeko, ere banaketa hau errespetatuko da bi lerro osatuz, 23 urtetik gorakoek osatutako lerroa eta 22 urtetik beherakoek osatutakoa.

Goitibera. Irun Hiriko V.Sari Nagusia Ekainaren 27an



Bostgarren urtez, Goitibera lehiaketa antolatu dugu 16 urtetik gorako edonorentzat. Irungo koadrilei dei egiten diegu parte-hartzera. Betti Gottin giro aparta sortzea dugu helburu!

Aurten deialdi berezia egin nahi diegu neska-emakumeei parte hartzera. Helburua zuekin bete nahi bai dugu, ez zarete lehen emakume-neskak izango baina lehengo urtekoei jarraibidea emango diezuenak bai.

Irun Hiriko V. Sari Nagusia, Ekainaren 27ean ospatuko da. Goizeko **9.30etan** hasiko da partaideen aurkezpena eginez. Gosaritxo bat egingo da 09:00etan eta lehiaketak 10:00etan izango du hasiera. Izena ematea, Maiatzaren 25an igandean irekiko dugu web gunearen bidez.

Aurten, Betti Gotti elkarteak goitiberak, jendeari eskatzen diogu, beraiek egitea, propio diseina ditzala beraien goitiberak. Aurten norbait animatuko balitz, ondorengo lotura honetan klikatu eta tutoriala izango dute lagungarri.

<https://youtu.be/q-iBGr6xipM?si=ytOqAhWZPSnaWwvt>

Beti bezala parte-hartzaileei pintxo bana emango zaie beren trago eta guzti Irungo txarangekin girotutako pintxo potean.

KOADRILEN KAMIXETAK-ATORRAK

2008 URTETIK urtero koadrilen artean kamisetak edo atorrak egitea sustatu izan dugu. **Polita da ikustea, koadrilen marrazki edo logoak, kamisetak edo atorrak apainduz jendeak duen irudimenaren indarra.** Herriari eskatu izan zaio bere ekarpena ekintza honetan egitea, kaleak girotzean asko egiten bait dute horrelako ekimenek eta. 2016 urtean eten behar izan genuen baliabide ekonomiko nahikorik ez izatearekin.

Baina 8 urte eta gero, 2024ean **Antxeta irratia**ren eskutik **berreskuratu genuen lehiaketa hau.** Inoiz baino gehiago, koadrilak animatzen ditugu, kamiseten marrazki, logo eta koadrilako izen, goitzen laburra jarritz, lehiaketan parte hartzera; ekimen polita da eta Herri Bazkaria kolore eta mezu alaiez girotzeko erraminta bikaina dira!

Lehiaketan parte hartzeko, Web gunearen bidez jaso nahi ditugu Zuen kamiseta, atorren proposamenak. Maiatzaren 28tik Ekainaren 15 era. Aurten bi egun ditugunez, animatzen zaituztegu ekainaren 20ean eta ekainaren 27an zuen kamisetak, atorrak ateratzea. Sariketa ekainaren 27an izango da plaza Urdanibia plazan antolatutako Bingo musikatuarekin batera.

BINGO MUSIKATUA Irungo 3 txarangekin eta KOADRILEN MAHAI ORIGINALA, TXUKUNENA DEKORATUENAREN TXAPELKETA, ekainaren 27an

Aurten berrikuntzen artean, sortutako egoera dela, eta koadrila eguna bi egunetan ospatuko dugunez,

Eguerdiko 12:00 aurrera, **Peña Poteo**, **Txintxarri** eta **Burrunba** Txarangarekin izango da animazioa Urdanibia plazako tabernetan.

13:30etan Betti gotti elkartearen eskutik, Koadrilentzako Mahai eta aulkien banaketa abiatuko da. Horretarako Urdanibia plazan egokitutako gunean antolatuko dute **Koadrilen** beren **bazkariaren mahai prestaketa**. **Sariketa berria sortu dugu** herrian jartzen duten giroaren parte diren koadrilei. Betti gottik **Mahai prestaketa originala, txukunena dekoratuenari saria eman nahi dio**. Eta 14:30etan bazkaria hasiko da Betti gottik Argazkiak eta mahai antolaketari puntuaketa egitera pasako da. Bazkari amaieran sariak banatuko dira. Bazkaria lortzeko aukera txozna guztien eskutik egongo da tike salmenta ekainaren 12 tik aurrera izango direlarik.

Betti gottik mahai aulki erreserbak izateko aukera emango du web orriaren bidez.

Bingo musikatuan parte hartzeko web gunean erosi beharko da bingorako txartela 5 euroren truke. Txintxarri, Peña Poteo eta Burrunbarekin batera egingo dugu bazkarian zehar.

PUNTU MOREA Ficoba-n

Puntu morea gune segurua da, emakumeen aurkako indarkeriarik gabekoa. 17:00etatik 20:00etara bitartean egongo da.

Honako egiteko hauek izango ditu:

- Herritarrak emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan sentsibilizatzea
- Indarkeria matxisten biktima izan daitezkeenak dagozkien baliabideetara bideratzea
- Leku batetik bestera joateko laguntza behar dutenak bilatu eta horretarako izena eman dutenen bolondresekin bidean laguntzea

STAND Ficoba-n

Aurten ere Herri Bazkarian alkohol-kontsumoa prebenitzeko stand bat jarriko dugu. Gehiegizko alkohol-kontsumoaren inguruan sentsibilizatzeke eta informazio eta arreta emateko stand bat izango da. Gainera, hala nahi dutenei, alkohol-froga bat egingo zaie.

AZKEN OHARRAK

Hasieran esan bezala, Ficoba-ko eta 27ko Herri Bazkaria ondo joan dadin **errespetua ezinbestekoa** da. Herri Bazkaritara etortzen diren guztiei ondo portatzea eskatzen diegu. Pertsona askoren lana eta parte-hartzea dago ekimen honen atzetik eta hurbiltzen diren gazteei errespetuz eta lasaitasunez jokatzeko eskatzen diegu. Txartelen banaketa egunean **arau simple batzuk** banatuko dira eta **horiek errespetatzea** eskatzen dugu. Oinarrizko gauzak dira (bazkarian zehar ez zutik jarri, janaririk ez bota, bertan dauden zerbitzarien lana erraztu, boluntarioen argibideak jarraitu...) eta eguna ondo joateko horiek errespetatzea beharrezkoa da. Esan bezala jarrera desegokiak ez errepikatzea eskatzen dugu antolakuntzak neurriak hartu behar ez izateko.



Gaur emandako **informazio guztia Interneten** ere eskuragarri egongo da: www.bettigotti.eus eta sare sozialetan.

Bestalde, gogoratu nahi dugu ekimen hau aurrera eraman ahal izateko jende askoren laguntza beharrezkoa dela eta beraz, **inor boluntarioko laguntzeko prest baldin badago**, jar dadila gurekin harremanetan: bettigotti2023@gmail.com.

Hemendik Irungo gazte guztiak eta ez hain gazte 2 egun zoragarri pasatzera animatzen ditugu.

ESKERRIK ASKO!!

KOADRILEN EGUNA 2026 HERRI BAZKARIA

PRESENTACIÓN

PROGRAMA

PARA PARTICIPAR EN LAS ACTIVIDADES

HERRI BAZKARIA

GOITIBERAK-GRAN PREMIO CIUDAD DE IRUN

KOADRILEN KAMIXETAK-ATORRAK

MENDARIA

PUNTO MORADO

STAND

ESKERRIK ASKO!!